

HUBERT LE BLONEN AZKEN HEGALDIA. **2014 (10´)**

KOLDO ALMANDOZ



Donostia, 1973. Kazetaritzan eta Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatua, zinemagile lana eta kazetari lana konbinatu ditu. Idatzizko hainbat komunikabidetan zein irratitan lan egin du eta 12 urte dira jada “The Balde” arte eta kultura aldizkariaren zuzendari dela.

Sinopsia

Motorraren aitzindari baten istorioa; haurra zela burruntziekin amets egin zuen eta bere ametsa betetzen hil zen.

Argazkiak eta animazioa uztartzen dituen film labur hau, 2014ko Kimuak katalogoan egon da.

Datu teknikoak


- **Zuzendaritza eta gidioia:**
Koldo Almandoz
- **Musika:** MAMMA MILK!
- **Efektu bereziak:** Angel Aldarondo
- **Animazioa:** Isabel Herguera
- **ekoizlea:** Marian Fernández,
Txintxua Films
- **Soinua:** Haimar Olaskoaga
- **Muntaketa:** Laurent Dufreche



LABURBIRA 2015
Film Laburren Zirkuitua
Martxoaren 1etik apirilaren 1era

EIN LAND. 2014 (5'32'')

IGONE ARREITUNANDIA BERRIDI



Mutriku, 1989. Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziatu zen 2011an (EHU), eta 2012an UAB-ko 'Teoría y Práctica del Documental Creativo' masterrean parte hartu zuen. Bertan, 'Totes les llavors sembrades' dokumental kolektiboaren barnean, 'Patrocínio' laburmetraia burutu zuen. Aitor

Gametxorekin batera 'La Ciutat Tipogràfica' zuzendu zuen eta lan honekin 2013ko Alcances Zinemaldian *Up to Fest* saria irabazi zuten. 2014an ZINEBI eta TYF-ek (Territorios y Fronteras) ekoiztutako 'Errautsak' luzemetrai kolektiboan parte hartu du zuzendari gisa.

Sinopsia

Ein Land lehen pertsonan egindako entsegua da, non zuzendariak familia, gizarte eta generazioaren inguruko begirada nostalgiko eta autokritikoa trazatzen duen. Film zatikatu bat proposatzen da, zuzendariaren bizitzaren dekonstrukzioa. Irudi eta soinuen korrelazio bidez, bere beldur, errezelo eta irrikak azalduko ditu, imaginario familiar eta sozialaren bidez.



Gaur egun, film labor honetan oinarrituta, izen bereko film luzea burutzen ari da zuzendaria Berlinen.

Datu teknikoak

- **Zuzendari, gidoilari eta muntatzailea:** Igone Arreitunandia
- **Ekoizlea:** Lekuk Elkartea

LABURBIRA 2015
Film Laburren Zirkuitua
Martxoaren 1etik apirilaren 1era

AITONA MANTANGORRIA. 2014 (20')

KEPA ERRASTI

Aretxabaleta, 1981. Kazetaritzan lizentziatua da eta Donostiako Arte Eszenikoen Tailerra egindakoa. Aktore eta gidoilari moduan lan egin du batez ere, bai telebistan, bai zineman eta baita antzerkian ere. Film labur honetan, hain zuzen, aktore ere ari da.



Sinopsia

Josu etxera itzuliko da Gabonak pasatzera. Aitonaren iraganari buruzko zerbait jakiteak arrebarekin eta aitonarekin berarekin duen harremana berplanteatuaraziko dio.

Datu teknikoak



- **Zuzendaria:** Kepa Errasti
 - **Argazki Zuzendaria:** Adrian Hernandez
 - **Edizioa:** Demetrio Elorz
 - **Musika:** Pascal Gaigne
 - **Soinu Teknikaria:** Ainara Luarizaiardi
 - **Zuzendari Laguntzailea:** Xabier Ormazabal
- **Lan talde artistikoa:** *Idurre:* Miren Gaztañaga, *Josu:* Kepa Errasti, *Bixente:* Isidoro Zabala, *Ibon:* Unax Santxez

Sariak eta jaialdiak

- **Lekeitioko Euskal Zine Bilera, 2014:** Gidoirik onena Profesionalen Sailean.
- **Ikuska Jaialdia, 2014:** Euskarazko Film Laburrik Onena.

LABURBIRA 2015
Film Laburren Zirkuitua
Martxoaren 1etik apirilaren 1era

ZELA TROVKE. 2013 (13'15'')

ASIER ALTUNA.



Bergara, 1969. Hainbat film luzetan teknikari lanetan aritu ondoren, zuzendaritzari heldu zion Telmo Esnalekin batera, eta biek batera idatzi eta zuzendu zituzten *Txotx* eta *40 ezetz* film laburrak, *Aupa Etxebeste!* film luzea eta *Brinkola* telebista-seriea. Berak bakarrik hainbat film labur (*Topeka*, *Sarean*, *Artalde*, *Zela Trovke* eta *Soroa*) eta *Bertsolari* film luze

dokumentala idatzi eta zuzendu ditu, guztiak nazioarteko zinemaldietan aurkeztu dira eta sari ugari irabazi dituzte. 2008an Txintxua Films produkzio-etxea sortu zuen.

Sinopsia

Moritat hilketei buruzko Europa erdiko herri-kanta zaharrak dira. Horietako bat da *Zela Trovke* eslovakiarra, eta Holland Baroque Society-k bere Barbaric Beauty kantutegirako berreskuratu du. Maite Larburu aipatutako orkestrako biolin-jotzailearen eskutik jakingo dugu zertaz ari den abestia.



Zela Trovke, 2013ko Kimuak katalogoan egon zen.

Datu teknikoak

- **Zuzendaritza eta gidioia:** Asier Altuna
- **Musika:** Holand Baroque Society
- **Argazkigintza:** Javi Agirre
- **Ekoizlea:** Marian Fernández, Txintxua Films
- **Soinua:** Alazne Amezttoy, Martín Guridi
- **Muntaketa:** Laurent Dufreche
- **Antzezleak:** Maite Larburu, Holand Baroque Society

LABURBIRA 2015
Film Laburren Zirkuitua
Martxoaren 1etik apirilaren 1era

ARCONADA. 2014 (10'23'')

ASIER URBIETA

Donostia, 1979. Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziatua, iragarkiak egitea du ogibide. Hainbat egin ditu telebistarako: ETB, Euskaltel, Laboral Kutxa, Eusko Jaurlaritza... Zortzi film labur burutu ditu, eta azken hau mundu guztiko 80 jaialditan aukeratua izan da, Indian, Islandian, Ukranian, Bulgarian, Turkian eta Alemanian besteak beste. 6 sari lortu ditu dagoeneko. Banatu Filmak ekoiztetxeak du bere filmek hainbeste bidaiatu izanaren ardura.



Sinopsia

Jonek Arconada izan nahi du baina ikastolako futbol taldeko atezain ordezkoa da.


Datu teknikoak

- **Gidoia eta zuzendaritza:** Asier Urbieta
- **Aktoreak:** Martin Leoz, Iune Amado, Markel Artola, Amaia Garmendia, Irene Alkiza eta Ramon Agirre
- **Ekoizpen zuzendariak:** Eider Gabilondo eta Haritz Elizegi
- **Ekoizpen eragileak:** Iñigo Urbieta eta Natxo Escobar
- **Argazki zuzendaritza:** Jon Sangroniz
- **Edizioa:** Manex Aranburu
- **Zuzeneko soinua:** Beñat Gantxegi
- **Soinu Postprodukzioa:** Haimar Olaskoaga
- **Irudi Postprodukzioa:** Imanol Gomez de Segura
- **Musika:** Pascal Gaigne
- **Banatzailea:** Aitor Arenas (Banatu Filmak)

LABURBIRA 2015
Film Laburren Zirkuitua
Martxoaren 1etik apirilaren 1era

DON MIGUEL. 2014 (5'42'')

KOTE CAMACHO



Oiartzun, 1980. Bilbon Arte Ederren ikasle zela jada komikiak argitaratzen zituen Napartheid aldizkarian. Lizentziatu eta geroko urteetan, Julio Medem eta Juan Carlos Fresnadillorentzat storyboard-ak idatzi zituen. Egun bere produkzio zinematografikoak idazten eta zuzentzen ditu eta film labur bakoitzarekin saiakuntza berriak egiten ditu. *La gran carrera* (2010) eta *Elkartea* (2013) lanekin hainbat sari irabazi zituen.

Sinopsia

Eugenio, aizkora eskuetan duela, Don Miguelen botikan agertzen da, pletoriko. Azken honek paper batzuk sinatzea nahikoa da bankuak Eugenioren eskatu duen dirua mailegatzeko.

Animaziozko film hau 2014ko Kimuak katalogoan dago.

Datu teknikoak

- **Zuzendaritza eta gidioa:** Kote Camacho
- **Ekoizpena:** ZASTAFILMS, Kote Camacho
- **Animazioa eta argazki zuzendaritza:** Kote Camacho
- **Zuzendaritza artistikoa:** Ekaitz Aguirre
- **Edizioa:** Kote Camacho
- **Musika:** Richard Wagner
- **Soinua:** Iñigo Telletxea
- **Efektu bereziak:** Kote Camacho
- **Aktoreak:** Eriz Alberdi, Joseba Apaolaza



Sariak

- Ekoizpen Onenaren Saria, **Lekeitioko Zine Bilera 2014**
- Animazio Onenaren Saria, **Errenteriako Laburmetrai Jaialdia 2014**
- Epaimahaiaren Aipamen Berezia, **Cortada 2014**, Gasteiz
- Publikoaren Saria, **Short Short Story Film Festival 2014** (USA)
- Publikoaren Saria, **Festival de Cortos de Navalafuente 2014** (Madrid)

LABURBIRA 2015
Film Laburren Zirkuitua
Martxoaren 1etik apirilaren 1era

ZAUNK. 2014 (2´)

IXONE AROMA, ARITZ LASARGUREN ETA ASIER VERA

Durangaldeko zuzendari gazte hauek elkarlanean egindako lehen lana da Zaunk. Bizkaiko gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko sorturiko Kmovie lehiaketan, bigarren saria lortu du filmak.



Sinopsia

Askotan nahita euskaraz jakin pertsonari gazteleraz egiten deutsegu. Baina txakurrei? euskaraz beti, ezta? Hemen horrelako situazio bitxi bat gure pertsonaiak berehala konponduko duena. Egin Zaunk!

Datu teknikoak

- **Gidoia eta zuzendaritza:** Aritz Lasaguren, Ixone Aroma eta Asier Vera
- **Soinua:** Nerea Arregi
- **Produkzioa:** Asier Vera
- **Aktoreak:** Gorka Madrazo, Aritz Lasarguren, Ixone Aroma, Saioa Agirre eta Mara (txakurra)



LABURBIRA 2015
Film Laburren Zirkuitua
Martxoaren 1etik apirilaren 1era

ZARAUTZEN EROSI ZUEN. 2014 (16´)

AITOR ARREGI



1 Argazkia: EITB

Oñati, 1977. Moriarti Produksioak-eko bazkidea den aldetik ekoizpen-etxe honetako hainbat proiektutan hartu du parte eginkizun ezberdinetan. Besteak beste, *Sahara Marathon* eta Goya Sarietara izendatutako *Lucio* dokumentaletan ko-gidoilari eta ko-zuzendaria izan da. Horrez gain *Glup* eta *Cristobal Molon* animaziozko film luzeak ere ko-zuzendu ditu.

Sinopsia

Mireni, kafea eskatzerakoan, askotan txanda-pasa egiten diote. Baina bere dendatik norbaitek alkandora bat lapurtu duela konturatzen denean, beste behin etsitzeari uko egingo dio.



Filma 2014ko Kimuak katalogoan dago, eta Lekeitioko Zine Bilerako film onenaren saria lortu zuen pasa den abenduan.

Datu teknikoak

- **Zuzendaria:** Aitor Arregi
- **Gidoia:** Jose Mari Goenaga, Aitor Arregi
- **Musika:** Pascal Gaigne
- **Argazkigintza:** Javi Agirre Erauso
- **Ekoizlea:** Jose Mari Goenaga, Moriarti Produksioak
- **Zuzendaritza artistikoa:** Mikel Serrano
- **Soinua:** Xanti Salvador, Iñaki Díez
- **Antzezleak:** Nagore Aranburu, Ainere Tolosa, Gotzon Sánchez